


Trafikoari eragingo dioten bi lan egingo dira uztailaren 26tik aurrera:

- San Lorentzon asfaltatze lan puntualak egin dituzte, eta datorren astean igogailu pasarela azpiko errepidean falta dan oinezkoen pasu elebatu bat asfaltatuko dute ere. Trafikoari eragingo dio. Bidea txandaka emango da.

- Aita Madina kalean. Gipuzkoako Urak enpresa inguruan egiten ari den lanen ondorioz Aita Madina kalearen behealdea (Jesusen Bihotza eliza paretik aurrera) trafikorako itxi egingo da asteazkenetik aurrera. Irailera arte, gutxienez. Herribusa Kale Zaharretik bideratuko da eta autoak Olaitturri ondoko aparkealekutik. Begiratu ondoko argazkia.



GORRIZ MARKATUTAKO IBILBIDEA: HERRIBUSak egingo duen ibilbidea

HORIZ MARKATUTAKO IBILBIDEA: gainontzeko "turismoak" (kamioirik ez) egingo duen ibilbidea.

KARRATU URDIÑAK: errepidea moztuta egongo den zatia.